

MEDIACIÓN

Día 3, 17 de agosto de 2012

Bigarren egunean, Summer of Labs-ari buruzko bideomatoi eta galdetegia erantzun genuen Summerlab-ean parte hartzen ari garenok, aldez aurretik pentsatu genuen bezala. Mediazio lan-taldeko kideok ia egun osoa pasatu genuen lan hori egiten. Horren ondorioz, gauean topaketa bat izan genuen eta geratzen ziren egunetan mediazio lan espezifikoei denbora gehiago eskaintzea pentsatu genuen.

Hirugarren eguneko goizeko asanblea oso egokia izan da nodoek Summer of Labs-ari martxa hartu diotela ikusteko, eta haien arteko loturak modu naturalean gertatzen ari direla egiaztatzeko. Asanblean egin diren proposamen ugariak dira horren adierazle. Batetik, beren izaeragatik kolaborazioa nahitaez eskatzen duten nodoek sinergiak sortzen jarraituko dutela jakin dugu: Robocicla nodoak, 10penkult dekalogoia umeen narratibetara itzultzeko bidean, p2p-ren inguruko kontakizunak sortzeko topaketa proposatu du, eta fab laben inguruko beste topaketa bat egingo dutela adierazi dute aurreko bi egunetan ere horren inguruan bildutakoek. Horrez gainera, tailer proposamen ugari egin dira; besteak beste, olio autoerregai gisa birziklatzeko tailerra proposatu du Lakabeko biztanle batek, jostailu erotikoak egiteko minianpli tailerra egiteko aukera aipatu da, audio interaktiboaren arloan lehenengo urratsak egiteko tailerra proposatu dute Teknotrakitana taldekoek. Gainera, egun osoan edozein momentutan egin zitezkeen zenbait gauza ere proposatu dira: Sonideras-ekoek generoari buruzko irratiklipak grabatzea proposatu dute, People Witness nodoak streaming tailerrak egiten jarraituko du eta arratsaldean espazializazio eta patch erakustaldia proposatu du Sonifications nodoak. Mediazio lan-taldekoek, aurreko egunetako esperientziatik ikasi ondoren, nodoetan gertatzen ari zena ikusgarri egiteko panela asanbleara eraman, eta tailer proposamenak, topaketak, nodoen premiak, unean unean apuntatu ditugu, egunaren hasieratik denon begien aurrean egon dadin.

Arratsaldean, Common Fabbing eta Robocicla nodoetako kideekin batu ginen, fab lab-etako mediazioari buruz elkarrekin hausnartzeko, baina horri buruzko post oso bat idatziko dugu.

Bestalde, Pussy Riot talde feminista errusiarra Summerlab-aren hirugarren egun horretan epaituko zutela eta, haien aldeko ekintza bat egiteko ideia sortu zen aurreko egunean. Aipatu beharrekoa da hainbat nodok elkarrekin parte hartu zutela ekintzan: Trapusonora-koek koloretako pasamontañasak egin zituzten, taldekoek erabiltzen dituzten erara, People Witness nodoak ekintzaren streaming-a egin zuen, Dokumentazio lan-taldeak grabatu egin zuen eta Mediazio lan-taldea ere hantxe ibili zen. Baina ekintzaren partaide izateko nodo askotako kideak bildu zirela da garrantzitsuena, elkartasun ekintza baten inguruan. Asanblea bukatu eta 15-20 bat pertsona atera ziren Deustuko Unibertsitateko zubirako bidean, batzuk ekintza egitera eta beste batzuk grabatzera. Hain zuzen ere, unibertsitatearen aurrean biluztu ziren ekintzaileak, haien gorputzetan Free Pussy Riot idatzita zutela, epaiketa salatzeke.

Pussy Riot-en aldeko ekintzak gogoratu zigun orain arteko Summer of Labs guztietan generoak indar handia izan duela, aurtengo lehen egunetan gehiegi ikusi ez dena. Esate baterako, iazkoan, nodo transfeminista bat egon zen. Dena dela, goizeko asanblean jostailu erotikoen tailerra proposatu zen, besteak beste 3D inprimagailuarekin dildoak egiteko. Horrez gainera, gauean, Performance nodoaren aurkezpenean, generoak Summerlab honetan leku gutxiegi duela salatu zuten, gero ikusiko dugun bezala.

Goizeko asanblean, software librearen inguruko eztabaida bat egitea proposatu zuen kide batek, Summerlab-ean parte hartzen ari ziren beste kide batzuk software pribatiboa erabiltzen zutelako. Azkenean ez zen eztabaida gauzatu, baina Summerlab-ak eduki beharko lukeen ildo transbertsalari buruz egunean entzun genuen aurreneko aipua izan zen. Indar handiagoz hitz egin zuten gauean Performance nodoko kideek genero ikuspegiak Summerlab-ean indarra galdu duela salatu zutenean. Bestela ere, egun horretan Summerlab-ak izan beharko lituzkeen bestelako ildo transbertsal

proposatu zizkiguten zenbait kidek: guifi.net-eko kide batek erabiltzen diren internet sareak libre izan beharko luketela aipatu zigun, beste batek jasagarritasun ekologikoa aipatu zuen. Nolanahi ere, gaiaren inguruko hausnarketa bat beharrezkoa zela pentsarazi ziguten egun berean entzun genituen komentario horiek guztiek. Bestelako gaiak ere gehi daitezke hausnarketara, esaterako, hardware librearen gaia, oraindik garatuegi ez badago ere. Guri honek guztiak mediazioan duen isla interesatzen zaigu batez ere: Performance nodoko kide batek esan zigun generoa transbertsala izan beharko litzatekeela Mediazio lan-taldean, eta pentsatu beharko litzateke zein beste arlo diren transbertsal mediazioan.